

**XEDAPENA, 2024KO MARTXOAREN 20KOA, OSATEK SA-KO ZUZENDARI GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA OPOSIZIO FASEKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, PUNTUAZIOAREN ARABERA, ADMINISTRAZIOKO OFIZIALAREN KATEGORIAN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO OPOSIZIO LEHIAKETA BIDEZ OSATEKEN DESTINOA DUENA.**

Osatekeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapen baten bidez, onartu egiten da plazak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautzen dira lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, Osatek SAN aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

Osatekeko zuzendari gerenteak 2022ko azaroaren 30ean emandako xedapenaren bidez, onartu egin ziren oposizio-lehiaketa bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikokoak, Osatek SAN destinoa duten administrazioko ofizialaren kategorian.

Osatekeko zuzendari gerentearen 2024ko martxoaren 1eko xedapen bidez, onartu egin zen oposizio-faseko izangaien behin-behineko zerrenda, puntuazioaren arabera, lan-kontratu finkoko langile izateko, Osateken destinoa duten administrazioko ofizialaren kategorian, oposizio-lehiaketa bidez.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, oposizio-faseko izangaien puntuazioaren araberako behin-behineko zerrenda egin ondoren, zuzendari gerenteak oposizio-faseko izangaien behin betiko zerrenda onartu du, puntuazioaren arabera.

Era berean, eta aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi bereziaren bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorren 11.2.2 oinarriarekin bat etorritik, merezimenduak alegatzeko epea irekitzen da.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

#### EDATZEN DUT

**Lehenengoa:** Oposizio-faseko izangaien behin betiko zerrenda onartzea, puntuazioaren arabera. Zerrenda hori xedapen honen eranskinean dago.

**Bigarrena:** Xedapen hau Osateken webgunean ([www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/](http://www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/)) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratzeko agintzea.

**Hirugarrena:** 10 egun balioduneko epea ematea izangaiei merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, Campo & Ochandiano enpresaren web-orriaren bidez ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)), helbide elektronikoaren bidez ([op-0a6540osatek@campo-ochandiano.com](mailto:op-0a6540osatek@campo-ochandiano.com)) edo Osateken egoitzan (Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua) Bizkaia Plaza eraikina. 48011 Bilbao.

Data/fecha: 2024 MAR. 20

Bilbon, 2024ko martxoaren 20an.

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones

Zuzendari gerentea

ZK / N°: 20/2024

Josu Xabier Llano Hernaiz